



**2022KO MARTXOAREN 31KO  
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko martxoaren hogeita hamaikan, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Eneritz Miranda Muxika, Felix Urkola Iriarte, Beni Goñi Padura, Iñaki Estensoro Sarasola, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Josu Sarriegi Zumarraga, Marije Insausti Onda, Maialen Amundarain Irizar eta Ion Garmendia Iturbe.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Bilkurari hasiera eman eta alkateak esan du Sahararen mozioen inguruan EAJ eta EH Bildu adostasunera iritsi direla eta hortaz eguneko gai zerrendan dauden bi mozioak erretiratu eta horien ordeztutako bateratua sartuko dela.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztu da 2022ko otsailaren 24an egindako bilkuraren akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- 2021EKO AURREKONTU LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.-**

Alkateak 2021eko aurrekontu likidazioaren berri eman du.

2021eko aurrekontu likidazio honetan gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 10.969.711,72 €koa da, aurrekontu emaitza 1.230.323,81€koa eta aurrekontu emaitza doitua 2.393.643,37 €koa.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

**LAZKAOKO UDALA IV.- AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUAREN ALDAKETA.-**

Onartutako 2022ko aurrekontua gauzatzeko udal arauan, 2. artikuluan, bermeak emateari buruz, "Udal Elkarteak ezin izango du abalik eman ez eta beste inolako bermerik hirugarrenei" esaten da.



Aurten Lazkao Lantzen S.A. udal elkarteak abal bat eman beharko duela aurreikusita, hori aldatzea planteatzen da, honako hau jarritz: "Udal Elkarteak 250.000€ arteko bermeak eman ahal izango ditu".

Gaia aztertu ondoren, eta ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, aho batez, honako erabakiak hartu ditu:

Lehenengoa.- 2022ko aurrekontua gauzatzeko udal araua aldatzea hasierako izaeraz onartzea.

Bigarrena.- Erabakia jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

Hirugarrena.- Jendaurreko erakustaldiko epean inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez baltz, hasierako onarpena behi betikoa bihurtuko da espresuki hartutako beste akordio baten beharrik gabe.

#### V.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEAREN 1., 2. ETA 3. AZPIFASEAK BURUTZEKO OBREN ESLEIPENA.-

Udal osoko bilkurak, 2021eko abenduaren 16an egindako bilkuran, Joxemiel Barandiaran kiroldetgia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanak egiteko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea erabaki zuen.


Lehiaketaren deialdia kontratatzailearen profilean argitaratu zen 2022ko urtarrilaren 10ean eta proposamenak aurkezteko jarritako epean, 3 proposamen aurkeztu ziren.

Aurkeztutako enpresak honako hauek dira:

- 1.- UTE INDENORT PV, S.L.U. - PROVISER IBÉRICA, S.L.U.
- 2.- ALTUNA Y URÍA, S.A.
- 3.- IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S L

Aurkeztutako enpresa guztiak onartuak izan ziren.

Balio-judizio baten arabera haztatu beharreko irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioa aztertu ondoren, puntuaketa hau lortu dute aurkeztutako enpresek:



LAZKAOKO ENPRESAK  
UDALA

	Proiektu teknikoaren azterketa	Lan egitaraua	Ingurum. eta gizarte neurrien azterketa	Obrari esleitutako talde teknikoa	GUZTIRA
	(16 puntu)	(16 puntu)	(7 puntu)	(6 puntu)	(45 puntu)
UTE INDENORT PV, S.L.U. -PROVISER IBÉRICA, S.L.U.	9	13,00	7,00	6,00	35,00
ALTUNA Y URÍA, S.A.	9	14,00	6,50	5,00	34,50



IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S L	15	16,00	6,50	6,00	43,50
-------------------------------------	----	-------	------	------	-------

Proposamen ekonomikoak eta beraien puntuazioak hauek izan dira:

ENPRESAK	Prezioa		Bermea		GUZTIRA (55 puntu)
	Zenbatekoa (*)	Puntuak (42 puntu)	Epea urteak	Puntuak (13 puntu)	
UTE INDENORT PV, S.L.U. - PROVISER IBÉRICA, S.L.U.	3.899.998,39€	42,00	5-5-5-4	13	55,00
ALTUNA Y URIA, S.A.	3.909.093,66€	41,93	5-5-5-4	13	54,93
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S L	4.035.273,63€	39,77	5-5-5-4	13	52,77

Beraz aurkeztutako enpresen puntuazioa guztira hau izan da:

ENPRESAK	Balio judizio baten araberakoak	Irizpide automatiko araberakoak	GUZTIRA
	Puntuak	Puntuak	Puntuak
UTE INDENORT PV, S.L.U. - PROVISER IBÉRICA, S.L.U.	35,00	55,00	90,00
ALTUNA Y URIA, S.A.	34,50	54,93	89,43
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S L	43,50	52,77	96,27

Ondorioz, eta lehen sailkatua Iparragirre Eraikuntza Lanak, S.L. izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitatzaileren erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L.k fidantza eratu du.

Hau honela, kontratazio mahaiak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L.ren aldeko esleipen proposamena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du beraiek abstenitu egingo direla, lehen ere gai honetan abstenitu ziren arrazoari beraiengatik, eta azpimarratu nahi dutela beraiek ez daudela kiroldegiaren kontra.

Hau guztia kontuan izanda, eta Ogasuna batzordea eta hirigintza, obra eta zerbitzuetako batzorde informatzaileetan informatua izan ondoren, ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ), aurkako boturik gabe eta 6 abstentzioz (EH Bildu) Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanak egiteko kontratua Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L.ri esleitzea erabaki du, LAU MILIOI HOGEITA HAMABOST MILA ETA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU euro ETA HIRUROGEITA HIRU zentimo (4.035.273,63 €) gehi BEZari dagokion

ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA ZAZPI MILA LAUREHUN ETA ZAZPI euro ETA BERROGEITA SEI zentimo (847.407,46 €)ko prezioan.

VI.- ITURGAITZAGAKO 4 E.L. BESTERENTZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Lazkaoko Udala eta "Lazkao Lantzen SA" udal-sozietate publikoa, hurrenez hurren, 4 E.L. (Emaizazko Lursaila) bizitegirako lurzati eraikigarriaren %14,825eko eta %85,175eko partaidetza zatiezinarenean jabeak dira. Lursail hori Lazkaoko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako ITURGAITZAGA 6. hirigintza-jarduerarako eremuan dago, eta lurzati horretan etxebizitzak, garajeak eta eranskinak eraiki ahal izango dira.

Lizitaziora 4 E.L. osoa aterako da. Lazkao Lantzen S.A.ren administrazio kontseilurak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran onartu du, gaur osoko bilkura honetara onarpenera jarri den baldintza plegua.

Esleipena arautuko duten prezioak edo tasak honako hauek izango dira:

4 E.L. lursailaren gutxienerako salmenta-prezioa, gorantz hobetu daitekeena: ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA BOST MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HAMABI euro (785.932,00 €). Kontzeptu horrengatik esleipenean ateratzeko den zenbatekoari dagokion BEZa gehituko zaio.

2014an Lazkao Lantzen S.A.k 4 E.L.ko partaidetza zati bat trukaketa bidez eskuratu zuen, eta trukean 3. solairuan kokatutako 70 – 72 m<sup>2</sup>ko etxebizitza bat eta soto solairuan kokatutako 15 – 16 m<sup>2</sup>ko garaje bat ematera behartu zen. Truke eskrituran etxebizitza eta garaje horrentzako finkatutako balioa EHUN ETA LAUROGEITA HAMABI MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI euro ETA BERROGEITA HAMAR zentimo (192.337,50 €) da. Horrengatik esleipendun suertatzen denak, Lazkaoko Udalak adierazitako pertsoneri lehen zehaztu diren ezaugarrietako etxebizitza eta garajea besterendu beharko dizkie eta besterentze eskritura hori egiterakoan Lazkao Lantzen S.A.k sustatzaile esleipendunari aipatutako zenbateko hori ordainduko dio.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du ados daudela.

Hau guztia honela, eta ogasun batzorde informatiboaren proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, aho batez, Iturgaitzagako 4 E.L. besterentzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea erabaki du.

VII.- COVID-19AREN EGOERA DELA ETA, MAHAI ETA AULKIEN TASAN %100EKO HOBARIA.-

Covid-19aren eraginez Lazkaoko ostalaritza jasaten ari den egoera zailari erantzunez, bere sustapenerako, eta martxoaren 10eko 1/2022 Foru Arauak bere zazpigarren xedapen gehigarrian jasotakoa oinarritzat harturik, 2022 urtean Lazkaoko ostalariei mahai eta aulkiei dagokien tasan %100eko hobaria aplikatzea proposatzen da.

**LAZKAOKO  
UDALA**

Gai aztertu ondoren eta jarduera ekonomikoko batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, aho batez, honako hauek erabaki ditu:



## LAZKAOKO UDALA

Lehenengoa.- 2022 urteko mahai eta aulkien tasaren %100eko hobaria hasierako izaeraz onartzea.

Bigarrena.- Erabakia jendaurrean jartzea 30 egun balioduneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

Hirugarrena.- Jendaurreko erakustaldiko epean inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez baltz, hasierako onarpena behi betikoa bihurtuko da espresuki hartutako beste akordio baten beharrik gabe.

### VIII.- "BANKU LAGUNKOIA" EAJ-PNV-REN MOZIOA.-

Moizioak honela dio:

1. "Lazkaoko Udalak adierazten du herritar guztiek izan behar dutela finantza-zerbitzuetarako sarbidea, eta ezin dela egon irisgarritasuna eta aurrez aurreko arreta zailtzen edo eragozten duen arrazoirik, arreta berezia jarriz adinekoei eta zailtasun bereziak izan ditzaketenei.
2. Lazkaoko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio finantza-erakundeekin hitz egin dezala, herritarrak oro har finantzen arloaren barnean sartzen direla bermatzeko neurri berriak abian jartzeko, arreta berezia jarriz adinekoen eta zailtasun bereziak izan ditzaketen pertsonen kolektiboari.
3. Lazkaoko Udalak finantza-erakundeei eskatzen die, elkarrizketa eta azterketa prozesu honetan, finantza-erakunde horiek konpromiso hauek har ditzaten:
  - Kolektibo horien (hau da, adinekoen eta zailtasun bereziak izan ditzaketenen) premia bereziak kontuan hartzea, eta aipatutako kolektiboek administrazio publiko honetan egiten dituzten izapideetan izan ditzaketen arazoak aztertzea, eta kontuan izan dituzten premia bereziak zerbitzuak ematerakoan.
  - Herritarrak oro har finantzen arloean barnean sartzen direla bermatzeko neurri berriak abian jartzea, arreta berezia jarriz adinekoen eta zailtasun bereziak izan ditzaketen pertsonen kolektiboari, eta bereziki ondokoei erreparatuz:
  - Kolektibo horri arreta hurbila eta azkarra ematea, kolektibo horri arreta ematea lehenetsiz, arreta pertsonalizatuagoa emanez, eta telefono bidezko arreta ere indartuz.

Kutxaren ordutegia zabaltea, bezeroen kontu korranteetan diru-sarrerak edo diru-ateratzeak egiteko ordu-murrizketak edo zenbatekoak saihesteko. Zerbitzu horiek oinarrizko kutxa-zerbitzuaren barruan daude, eta zerbitzu hori emateak ez du esan nahi komisioak kobratu behar direnik, Espainiako Bankuaren jardunbide egokien irizpideari jarraikiz; izan ere, irizpide horren arabera, erakundeek bezeroen eskura jarri behar dute, gutxienez, doako bitarteko bat, irisgarria eta segurua, beren kontutik eskudirua atera ahal izateko, kontuan hartuta kolektibo bakoitzaren inguruabar bereziak.

- Kutxazain automatikoak dauden aztertu eta horiek bermatzea biztanle kopuru-



ari erreparatuta, eta bulegorik ez dagoenean, bankuek eraikin publiko eta irisgarrietan jarri eta artatu ditzatela.

- Aztertzea, Eusko Jaurlaritzarekin eta Finantzen Euskal Institutuarekin batera, udalerrri horietan eta banku-bulegorik ez dagoen landa-eremuetan, kutxazain automatikoak jartzeko laguntza eta finantzaketa neurriak.
- Banku-bulegorik eta kutxazain automatikorik ez dagoen eremuetan, eskudirua sartu edo ateratzeko ohiko banku-zerbitzuak ematen dituzten autobusen edo bulego mugikorren maiztasun erregular eta egonkorra bermatzea.
- Koloktibo horrentzat bereziki eskaintzen dituzten zerbitzuak edo produktuak lortzeko sistema digitalak edo makinak erabili behar izatea gutxitu, eta, horretarako, gaitasun digitalak eskuratzeko kanpaina bat bizkortzea eta bultzatzea, behar diren ezagutzak eta tresnak ez izateagatik oinarrizko zerbitzuak eskuratu ezin dituzten pertsonak bazterkeria hori jasan ez dezaten, eta banku lagunkoia lortzeko prestakuntza-ekintzak indartzea.
- 2021eko uztailaren 21ean sinatutako bankaren konpromiso sozial eta jasangarria indartzeko protokolo estrategikoan lanean jarraitzea, finantza-inklusioa eta digitalizazioa sustatzeko.”

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du hau mozioz mozorrotutako kontramozio bat iruditu zaiela, pentsionisten mugimendua herriz herri aurkeztzen ari den mozioari aurre hartuz eta han proposatzen ziren neurriei bide ez emateagatik aurkeztutakoa. Esan du baita ere pentsionisten mugimendua aurkeztutakoa askoz zehatzagoa dela eta mozio hau onartzea hari muzin egitea litzakeela eta beraz mozio hau ez dutela onartuko.

Honen ondoren mozioa bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ) eta aurkako 6 botoz (EH Bildu) mozioa onartu egin du.

#### IX.- GOIERRIKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

Moziok honela dio:

**“LAZKAOKO UDALEAN ORDEZKARITZA DUTEN ALDERDI ETA KOALIZIOETAKO UDAL-TALDEEI**

Idazki honen bidez, GOIERRIKO PENTSIODUNAK, Goierriko Pentsiodunen mugimendua, eskatzen dugu jarraian proposatzen dugun mozioa ahalik eta azkarren eztabaidatu eta onar dadin udalbatzarrean, adinekook eta pentsiodunok zerbitzu horien murrizketen eta digitalizazioaren ondoren, banku-zerbitzuetara jotzeko dugun arazo larria dela eta.

**SARRERA: BANKUA, GURE KEZKAREN XEDE**

Bankuek eta (lehen, aurrezki-kutxek ere), zerbitzu publikoa ematen dute eta finantza-bi-tartekarien funtzioa betetzen dute, jarduera ekonomikoa eta produktiboa errazteko. Aurrezki-kutxen likidazioak (kasu batzuetan), banku pribatu bihurtu izanak (beste batzuetan) eta azken horiek xurgatu izanak (beste batzuetan) kalte handia eragin dute herritarren arretan, bereziki adineko pertsonen arretan.



### 1. Abusuzko klausulak eta praktikak

Abusuzko klausulez jositako Espainiako bankuen jardunbideak, neurri batean, Europako justiziaren eskakizunak baino ez ditu zuzendu. Azken urteetako errebaso labur batean, honako hauek aurkituko ditugu:

- Zoru-klausulen kaltea,
- PFEZ klausulak aplikatzea, aplikatutako interes-tasan bi puntu baino gehiagoko aldeak eragin baitituzte.
- Hipoteka-kredituen epemuga aurreratuko klausulak, kuota bakarra ordaindu gabe ere, geroago zuzenduta, 2019ko irailetik aurrera.
- Hipotekadunari hipoteka eratzean ez zegozkion gastu-karguak, horiek irekitzeko gehiegizko omisioekin batera.
- Revolving txartelak, sor dezaketen interes-tasa handia dela eta, lukurreria dagoela adierazi duten epaiak eragin dituztenak.
- Erabiltzaileak auzitegiara jotzera behartzeko estrategia, erreklamaziorik ez egiteko, arrazoiak bezeroari laguntzen ziola jakin arren.

### 2. Diru publikoa behar izan duen bankua

Ikusten diren abusuzko praktikak erabiltzeaz gain, eta hori modu orokorrean, banku/kutxa batzuk intentsitate handiagoarekin, beste batzuk txikiagoarekin, gordailuzainak babesteko 65.000 milioi euroekin sastatu/erreskatatu behar izan da.

Eta hori gertatu zen bitartean, 2021eko hirugarren hiruhileko ekitaldia itxita, Espainiako banka osoak (A.E.B. ko datuen arabera), 11.151 m/€ irabazi zituen, eta kapital etekina %7,2koa izan zen.

### 3. Administrazio-prozesuen informatizazioa eta digitalizazioa

Egoera horri, azken urteotan, administrazio-prozesuen informatizazioa eta digitalizazioa ere gehitu zaizkio, eta, horren ondorioz, zordunketa- edo kreditu-txartel bat erabili behar izan da zeure dirua mobilizatu ahal izateko, banku-komisio gero eta handiagoak ordainduz eta Internet bidez edozein kudeaketa egin behar izatera bideratuz.

Mekanizazioaren bide horrek zuzeneko aurrez aurreko arreta pixkanaka kentzea, ordutegiak murriztea, bulegoak kentzea eta langileak gutxitzea ekarri du. Herri txiki askotan, gertatu zen banketxe hura betiko itxi zuten.

### 4. Nola eragiten dion horrek herritarrari, finantza-bitartekariaren den bankuaren nahitaezko erabiltzailea baita.

Zalantzarik gabe, herritar guztiei eragiten die. Bankuen eta langileen bulegoak nabarmen murriztea, bai eta jendeari zerbitzua emateko ordutegiak murriztea ere. Banketxeen aurrean dauden ilarak lotsa sentitzeko dira.

Landa-eremuko herritarrek, lehen banku-bulego bat zegoen tokian, oraindik dagoen lekura joan behar izaten dute. Diru kontu bat edukitzeagatik ordaintzetik kobratzera pasa dira, eta, batzuetan, baita zure dirua ateratzetik ere.

Banku-komisioen gehikuntzek, hasiera batean, herritar guztiei eragiten diete, eta salbuespena, batzuk badaude, paradoxa honetan ezartzen da: hain zuzen ere, bere kontuan saldo handiena duen pertsona da, eragiketa gehien egiten dituen eta bankuari lan gehiago ematen diona, komisio horiek saihestu edo murriztu ditzakeena.

Bankak beti kobratu du gehien gutxien daukanari, eta interesak banatzen zituenean, beti eman die gehiago gordailu handiei. Abiapuntua izan da, eta jarraitzen du, hobeto tratatu behar dela negoziatzeko botere handiena duena eta pobreak arrisku handiagoa sortzen diola uste duena. Gaur ez zaizkio bezero pobreak interesatzen.

Bankuak egin dituen eta oraindik ere egiten dituen abusuzko praktikak eta klausulak edozein herritar izan dute eta izaten jarraitzen dute hartzaile. Baina egia da, halaber, hipoteka-exekuzioen hartzaile nagusiak arrazoi bategatik edo besteagatik prekarietate handieneko egoeran daudenak izaten direla.

Baina egia da bankaren funtzionamendu horrek kalte egiten diela herritarrei oro har, baina hori nabarmenago gerlatzen da biztanle zaharrenean artean. Luzaroan itxaroten egon ondoren, espaloietan eta eguraldi txarraren eraginpean dauden pikorta-ilarak kaltegarriagoak dira, oro har, adineko pertsonentzat. Adineko pertsonen belaunaldia da, eta hor daude/gaude pentsiodun askok, ezagutza informatikorik ez dutenak.

Era berean, berriz ere pentsiodunak gara, gaur egungoak eta etorkizunekoak, Bankuak eta haren pregoilariek egiten dituzten Pentsio Sistema Publikoaren bideraezintasunari buruzko analisi interesatu, lerratu eta joerazkoen argitalpenen biktimak, sistema horrekiko konfiantza ahultzeko eta aurreikusteko aurrezki-negozia errazteko (aseguruak, pentsio-planak...).

5. Eta hori gertatu den bitartean, bankuak bere langileekin nola jokatzen duen eta oligarkiarekin nola jokatzen duen.

Bistan dago, lehenengoak alde batera utz ditzakeenez, kontratuak Enplegu Erregulazioko Espedienteen bidez azkentzeko praktiken bidez egiten duela.

2021ean, E.R.E.-ren bidezko kaleratzeak ez dira eten, BBVA 2.725 kaleratze, Caixa Bank 6.452 kaleratze, Banco Sabadell, bere plantillatik 1.800 langile baino gehiago atera ondoren, urriaren 5ean, aurre akordio bat lortu zuen bere ordezkari sindikalarekin, beste 1.380 langile ateratzeko. Abenduaren 3an, UNICAJA eta Bankuaren gehiengo sindikalaren arteko aurre-akordio bat iragarri ziguten, Liberbankekin bat egitearen ondoriozko enplegu-erregulazioko espediente baterako, 1.513 langileri eragingo diena.

Etan ez dezagun ahaztu kaleratze horiek langabezia-, kotizazio- eta laguntza-prestazioak eragiten dituztela, hala badagokio, baita gizarte-segurantzako kotizazioak ere hitzarmen berezietan, diru publikoa, azken batean erreskate berri bat, nahiz eta horrela ez deitu, etekin mamitsuak lortzen jarraitzen duen Banku Pribatu bati.





Aurrekoa, Europako Banku Agintaritzaren Txostenaren arabera (EBA), 2019an Espainiako bankuetako 163 goi-kargudunek gutxienez milioi bat euro irabazi zituzten urte hartan, eta batez besteko ordainsaria 2,3 milioikoa izan zen, Europako hirugarren altuena, Liechtensteineko bankariek 2,6 milioirekin eta Maltakoek 2.4 milioirekin soilik gaindituta.

#### 6. Eta lanen azpikontratazioaren eskandalua.

Eta jada enplegatuen kaleratze masiboen koktela, altxor publikoarentzat kostu handiak dituen (langabezia-asegurua funtsak), enpresa-mozkinak eta banku-oligarkiarentzako ordainsari eta etekin eskandalagarriak badira, gainera, ikusten dugu banku handietako batak, gutxienez, jardunean dauden bere langileen lanpostuekin "jolasteaz" gain, zuzeneko enplegua sortzea saihesten duela, hau da, beste enpresa batzuen bidez bankuko lan berdinak egitea bankuan bertan, baina langile horien, Bankuko Hitzarmen barnean izan gabe, eta horrela bere lan-baldintzak suntsituz.

#### 7. Galeren aukerak.

Bankuaren erreskateak 22.424 milioi euroko kostua izan zuen, eta horietatik 3.302 milioi euro baino ez dizkio itzuli Estatuari. Aurtengo martxoaren 26an kontsumitu zen Bankiaren xurgapena; izan ere, Estatua BBOFren bidez (Bankuak Era Antolatuan Berregituratzeko Funtsa) erakunde horretako lehen akzioduna zen, kapital sozialaren %61,8ko partaidezarekin. Orain, Caixabanken partaidetza hori %16,11ra murriztu da, eta bigarren akzioduna da, Criteria Caixaren atzetik. Partaidetza hori ez da garrantzitsua izan, jada frogatuta geratu zen pasa den Maiatzaren 14an, Caixa Bankeko Akzionisten Juntaren ondoren.

Era berean, SAREB (Banco Malo) erabiltzeko aukera galtzen ari da, neurri batean behintzat, alokairuko etxebizitza-parke publiko baten gabezia arintzeko.

Eurostatek Sareb zor publikoaren perimetro horren barruan sartzeko hartutako erabakiak eragindako kalte osagarriarekin, eta horrek 35.000 milioi gehiago gehitzea ekarri du; beraz, orain BPGren % 122ra iristen da.

#### 8. Zer esan Kutxabanki buruz

Orain, 2022aren hasieran, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarroi eskatuko baligute Kutxabank banku bat gehiago den ala ez galdetzeko, ziur aski gehienok esango genuke, banku-jardunaren arabera, beste banku bat dela.

Bankuei dagokienez, oro har, esan dezakegun guztia, edo ia guztia, Kutxabanki aplikatu da:

Bat etorri da bankuen gehiegizko klausulaz betetako banku-praktikekin, neurri batean Europako justiziaren eskakizunak bakarrik zuzendu baititu.

- Zoru-klausulak deiturikoei eustetik ez jaisteko irizpideari eutsi dio, eta horretara behartuta egon denean, demandak egin aurretik erreklamaturako zenbatekoak itzultzea onartu gabe jarraitu du.
- Gorenera jo zuen, hogeita hamar banketxek baino gehiagok Madrilgo Probintzia Auzitegiaren 2018ko azaroko epaiaren aurka jarritako errekurtsoarekin bat eginez. Epai

horrek osorik baietsi zuen Adicaek jarritako apelazio-errekurtsoa, eta zoru-klausulengatik bidegabe kobratutako zenbatekoak itzultza kondenatu zituen banku guztiak.

- IRPH klausulen aplikazioari eutsi dio, eta aplikatutako interes-tasan bi puntu baino gehiagoko aldeak eragin ditu.
- 2019ko irailetik aurrera Auzitegi Gorenak irizpidea aldatu behar izan ez zuen arte, hipoteka- kredituen epemuga aurreratua aplikatzen jarraitu zuen, kuota bakar bat ordaindu gabe.
- Hipoteka bat eratzean hipotekatuari ez zegozkion gastu-karguei eusteko irizpide orokorrari jarraitu zitzaion.
- Kutxabank hipoteka-kredituen gehiegizko irekiera-komisioetatik kanpo geratu da.
- Erabiltzaileak auzitegietara jotzera behartzeko estrategiatik kanpo ere badago, erreklamatzeari uko egiteko, nahiz eta jakin arrazoia bezeroei dagokiela.
- Kutxabank ez da nabarmentzen bezeroen aldeko tratuagatik, banku guztiak jarraitzen ari diren komisioen gorakadan.
- Era berean, ez dira Kutxabanketik at geratu bezeroek arreta jasotzeko aire zabaleko ilara lotsagarriak, pandemiaren ondorioz sortu baitira neurri handi batean, bai, baina baita bulegoen eta langileen murrizketaren ondorioz ere. 30.000 euskaldun inguru bizi dira dirua lor dezaketen leku batetik 5 km baino gehiagora. Gainera, berezitasun batekin, Kutxabanken jende zaharrenaren ilarak ugariagoak dira, bankua antzinako kutxen oinordekoa delako eta adineko pertsonen artean bezero-kuota handiagoa duelako.

Iraganean Kutxabanken aurreko euskal aurrezki-kutxek EAEko enpresa-proiektu handietan akziodun aktibo gisa betetzen zuten papera pixkanaka lausotzen joan zen, eta gure biztanlerian inolako errotzerik gabeko inbertsio-funtsen presentziari bide eman zion. Funts horiek kasu batzuetan onbideratzea bilatzen zuten, beste batzuetan enpresaren finantzak hobetzea, eta, jakina, erdibidean gelditu gabe, lan-baldintzen kaltetan, inoiz baino epe laburragoan eta epe egokiagoan.

Azken adibidea, oraingoz, Kutxabankek Mas Movablekin duen akordioan dugu, bankuak Euskaltelen zuen kapitalaren %19,88ko partaidetzatik askatzeko.

Kutxabanken partaidetza-zorria mehetzen hasi zen, hain zuzen ere, 2012an Bankua sortu zenean, eta, aldi berean, Europako Banku Zentrala (EBZ), banku-ikuskatzaile berria, sortu zenean. Une hartan, euskal finantza-taldekoak ez ziren enpresetako akzio-partaidetzen zorria 4.000 milioi euro ingurukoa zen. Gaur egun 1.000 milioira baino ez da iristen. Iberdrolaren Administrazio Kontseiluko partaidetzaren %9 orain %lekoa da, neurri batean Kutxabankek ez baizik BBK-k erosi berri duen 620.000 tituluko paketeak zuzenduta; beraz, konpainia elektrikoan egiten duen inbertsioa haren kapital sozialaren %1,7ra igotzen da. NH Hoteles, Zeltia, Enagas, ACB eta Natran izan ziren partaidetzak likidatu egin ziren. Kontrola izan zuen Ibermatikako partaidetza eta Ingeteamekoa nabarmen murriztu dira, eta EAEko partaidetza ere murriztu egin da. Oraingoz, %14.02ko partaidetza mantendu da Petronorren.



Bai, esan behar dugu 2014tik, eta etengabe, Kutxabank dela Espainiako bankuen kaudi-menaren ranking orokorraren buru, eta Kutxabank-Mario Fernandez afera izan ezik, Mikel Cabièces, 2015eko urtarrilean hedabideetara jauzi egin zuena, banku serio batez hitz egin dezakegula.

#### 9. Banka publiko baten beharra

Hasieran, mozio hau prestatzera eraman gaituzten zioen azalpena eman genuen, honako hau esanez: "Bankuek, eta lehen baita aurrezki-kutxek ere, zerbitzu publikoa ematen dute eta finantza-bitartekarien funtzioa betetzen dute, jarduera ekonomikoa eta produktiboa errazteko.

Aurrekoa esanda, ezin dugu ahaztu banku pribatuak, merkataritza-enpresa den aldetik, dirua irabaztea duela helburu. Hau da, negozioa eta banku-funtzioa bereizi behar dira. Ez da hutsala herritarren zerbitzura dagoen BANKU PUBLIKO bat egotea edo ez egotea, gure azalpenean ikusi ditugun eta bankuaren egungo funtzionamenduan ez dauden jardunbide egokietan eta irizpide etikoetan jar baitezake arreta.

Pribatizazioak bankuaren jatorrizko funtzio garrantzitsua saihesteko aitzakia gisa balio badu, finantza-tirania askatzen da. Egunero ikusten dugun tirania horrek gutxienez bi helburu ditu: batetik, bide telematikoari helduz gizartearen begirada baztertzea (haiek dena jakiten dute, eta gainerakoak ezer ez); eta, bestetik, gobernuari presioa egitea eta betoak ezartzea beren gustukoak ez diren politika publiko, sozial eta laboralei, ez baitituzte asezten errentagarritasun ekonomikoen interesak.

Bai ikusi dugula, kasu batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago, bankaren egunero egiteko jarduera etiko bat falta dela oro har, eta, gainera, agerian utzi badugu hori herritarren kalterako dela, neurri handiagoan eragiten diela gizarteko pertsona babesgabeek eta adineko pertsonak, beraz, pentsiodunen gehiengo handi baten ustez, sobera justifikatuta dago Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak, eta Udalbatza honetan Goierriko Pentsiodunak, mozio hau aurkeztea, eta horren bidez adieraztea beharrezkoa dela banku publiko bat, zelatari-lanak egingo dituen eta banku pribatuen praktiken eredu konparatiboa izango dena. Baina errealitatea da ez daukagula Banku Publiko beharrezko hori. Kreditu Ofizialeko Institutuaz (KOD) soilik hitz egin genezake, banku publiko gisa.

KOI benetan banku publiko gisa definitzen da, Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioari Ekonomia eta Enpresari Laguntzeko Estatu Idazkaritzaren bidez atxikitako enpresa-erakunde publikoaren forma juridikoarekin.

Haren eginkizunak dira, batez ere, herrialdea hazten eta garatzen lagunduko duten jarduera ekonomikoak sustatzea, bai eta nazio-aberastasunaren banaketa hobetzea ere. Berziki, garrantzi sozial, kultural, berritzaile edo ekologikoagatik lehentasunezko arreta merezi dutenak.

KOI lerroak epe labur, ertain edo luzeko jarduerak finantzatzeko lerroak dira, edozein inbertsio motatarako eta baldintza lehiakorretan. Gobernuak funtsak ematen ditu, baina ez zuzenean, baimendutako finantzaketa-erakunde bitartekaritzarekin baizik, azken batean, kreditu-erakunde bitartekaritzarekin (Banku Pribatua, ia osorik).

Bestalde, kreditu horiek oso kolektibo zehatzei ematen zaizkie: autonomoei, enpresei eta Espainian jarduten duten erakunde publiko edo pribatuei, baina ez pertsona fisikoei oro har, salbuespenen bat egon bada ere.

Horregatik eskatzen da banka PUBLIKOA, bi printzipio hauen arabera:

- ✓ Gehien duenari gehiago kobratzea, eta kudeaketaren kostua zerbitzu horretaz gehien baliatzen direnei egozte.
- ✓ Behar den arreta presentziala ematea, bezeroek arreta hori jaso dezaten. Kontuak eta ordainagiriak kudeatzean sortzen zaizkien arazoei erantzun behar badiete.

Egindako zioen azalpenean azaldutako guztia oinarri hartuta, Udalbatza honen Osoko Bilkuran honako hau onartzea eskatzen dugu:

1. Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak leihatila bat irekitzeko eskatu die Lazkaoko udalerrian dauden banketxe guztiei. Leihatila horretan, herritar guztiei, eta 65 urtetik gorakoei lehenetasunez, aurrez aurreko zerbitzua bermatuko zaie lanaldi osoan.

2. Lazkaoko Udalbatzaren Osoko Bilkurak Lazkaoko udal-mugartean dauden banketxe guztiei eskatzen die lokaletara sartzeko murrizketak dauden bitartean eta/edo pertsonen arteko urruntze-neurriak gorde behar diren bitartean; neurri horiek eta beharrezkoa den beste edozein bete behar direnean, entitatearen sukurtsal bakoitzean ahalik eta edukiera handieneko itxarongela bat gaitzea, hori materialki egingarria denean, edo bestela beste neurri batzuk hartzea, kalean eguraldiaren aire zabalean bezeroen ilarak sortzea saihesteko.

3. Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak eskatzen die Lazkaoko udal-mugartean dauden banku-erakunde guztiei, azaroaren 24ko 19/2017 Errege Dekretuan, otsailaren 28ko ECE/228/2019 Aginduan eta martxoaren 22ko 164/2019 Errege Dekretuan xedatutakoa betez — Oinarrizko ordainketa-kontuak arautzen dituztenak —, 1. mailan, hileko komisioa ordainduta, eta doakotasuneko 2. mailan, urrakortasun-egoera kolektiborako eta hedapenerako aukera zabala egin dezatela, eta sinplifikatzea aurkeztu beharrekoa dokumentazioa kontu horiek eskatzen dituenari.

4. Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak eskatzen die Lazkaoko udal-mugartean dauden banku-erakunde guztiei: 65 urtetik gorako pertsoneri, hala eskatzen badute, doako zordunke-txartelak ematea, inolako komisiorik gabe, erabilera-mugen inolako ordainketarik gabe, saldo jakinaren eskakizunik gabe, erabiltzeko gutxieneko zenbatekorik gabe, edo antzeko produktuak eduki gabe.

5. Kontuan hartuta bankuek, beren ohiko jardueran, bezeroekin bat datozen funtzio pribatuak betetzen dituztela, hala nola, pentsio-plan bat, inbertsio-fondo bat harpidetzea, akzio-pakete bat edukitzea eta kudeatzea, kutxa gotor bat alokatzea..., eta bezeroak jarduerari hori ez duela nahitaez egin behar. Baina, aldi berean, funtzio publikoak betetzen ditu, eta bezeroa ez da eginkizun horietan ituntzen, baizik eta, ezinbestean, bankuaren bitartekaritza onartu behar du beste aukerarik gabe, hala nola gordailugilea, bere dirua kentzea, ezinbesteko horniduren ordainketa, hala nola gasa, elektrizitatea, zergen ordainketa eta tasak.



LAZKAOKO  
UDALA

Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak Espainiako Bankuari eskatzen dio bankuen funtzio pribatu eta publikoak argi eta garbi bereizteko eta azken horien doakotasuna edo, bestela, gutxieneko komisio bat ezartzeko.

6. BANKA PUBLIKOA osa dezatela eskatzen die Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioari (Ekonomiako eta Enpresari Laguntzeko Estatu Idazkaritza), bai eta Espainiako Bankuari eta euskal instituzioei ere, Banka Pribatuarekin bateragarria izan dadin, Bankaren berezko funtzio publikoak betez eta pertsona fisikoentzako sarbidekoak izanik, honako printzipio hau bete dezaten:

Saldorik handiena duenari gehiago kobratzea, eta ordainagiriaren eta gainerako ordainbide- eta kobrantza-bideen kudeaketaren eta beste prestazio batzuen kostua kobratzea, batez ere zerbitzu hori gehienbat baliatzen duten pertsona fisiko edo juridikoei.

7. Lazkaoko Udalbatzako Osoko Bilkurak 1. akordiotik 4.era bitartekoak udal-mugar-tean dauden banketxe guztiei eta 5. eta 6. erabakietan aipatutako erakundeei helaraziko dizkie."

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du mozioari aldeko botoa emango diotela, ikusten dutelako pentsionisten mugimendua anitza eta iraunkorra dela eta beraz zer aldarrikatua baduelako. Esan du baita ere banketxeen herritarrei oro har eta adinekoei bereziki ematen dien tratua eskasaren deskribapen bikaina egiten duela mozioak. Esan du baita ere pentsionistek mozioan egiten dituzten eskaerak zentzuzkoak iruditzen zaizkiela. Eta guzti horiengatik mozioari baiezkoa emango diotela.

Alkateak (EAJ) esan du ezezkoa emango diotela mozio honi, alde batetik gauza asko nahasten direlako mozio honetan, sarreran bankua gure kezkaren xede izenburuarekin hasten dela mozioa eta ondoren aipatzen diren arazo eta kezka askorekin eta hauekin ados egon litezkeela eta hala daudela beraien mozioan jaso den bezala. Esan du baita ere finantza zerbitzura sarbidea eta digitalizazioaren aurrean adinekoei eta zailtasun bereziak dituzten pertsonen erraztea baldin bada benetako borondatea beraiek ados daudela, baina aurkeztu den mozioan beste hainbat eta hainbat gauza ere aipatzen direla, esate baterako abusuzko klausula eta praktikak eta badakitela horrelakoak ere badaudela baina gai hori epaitegietan dagoela eta han epaitu beharko dela gai hori, eta ez gaitzela hasi epai lanean. Esan du aipatzen dela baita ere mozioan langileen lan baldintzak baina ez direla tamalez banketxeetako langileek bakarrik egoera honetan murgilduta daudenak. Kutxabanki ere aipamen berezia egiten zaiola eta banku publikoa eskatzen dela. Lehen esan den bezala gai asko nahasten direla. Esan du baita ere mozioan eskatzen diren hainbat puntu beraien (EAJ) mozioan jasota daudela eta horietan guztiz ados daudela baina mozioan aipatzen diren beste hainbat puntutan beraiek ezin dietela udaletik erantzun, beraien esku-menetik kanpo geratzen direlako. Eta guzti honengatik mozioari ezezkoa emango diotela.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 boto (EH Bildu) eta aurkako 7 botoz (EAJ), mozioa atzera bota du.



LAZKAOKO  
UDALA

X.- MENDEBALDEKO SAHARAKO GATAZKA POLITIKOAREN INGURUAN BI UDAL TALDEEK ADOSTUTAKO MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"Espainiako Estatuak, arrazoi historiko, politiko eta juridikoengatik, erantzukizun handia dauka bizi-bizi dirauen Mendebaldeko Saharako gatazka politikoan.

Izan ere, 1975an, Hagako Nazioarteko Auzitegiak legez kanpoko jo zituen 'Madrilgo Akordioak'. Ondorioz, Marokok ez dauka subiranotasunik Mendebaldeko Saharan, eta okupazioa legez kanpoko da erabat.

Duela hamarkada batzuk, Nazio Batuen Gutunean jasotzen denarekin bat etorritik, NBEak Mendebaldeko Saharaz adierazi zuen "Lurralde ez Autonomoa" dela, gobernu propioa osotasunean eskuratu ez duten herrien lurraldeei ematen zaien izendapenaren arabera. Afrika osoan, Mendebaldeko Saharako da oraindik etenda dagoen estatutu post kolonial bakarra.

Halaber, Nazio Batuen Erakundeak Espainiako Gobernuari etengabe erreklamatu dio potentzia kolonial administratzailea izanik –'de iure' ere bai Auzitegi Nazionalak 2014an ebatzi zuen autoaz geroztik–, ahaleginu dadila behar adina Saharako Herriak bere autodeterminazio eskubidea erabil dezan erreferendumaren bidez.

Espainiako Gobernuaren aldebakarreko erabaki berri hau ez da jarrera sinesgarria, ezta errealista ere, izaera politikoko gatazka hau konpontzeko. Horiek horrela:

- 1- Lazkaoko udalak erabat arbuiatzen du Espainiako Gobernuko agintariek Mendebaldeko Saharako gatazka politikoaren inguruan jarrera errotik aldatu izana, historian inoiz ez bezala. Aldaketa honek esan nahi du Marokok Mendebaldeko Sahara erabat bereganatzeko dituen asmo eta anbizioekin bat egiten duela Espainiako Gobernuak.
- 2- Lazkaoko udalaren ustez, Espainiako Gobernuaren azken jarrera honek erabat urratzen ditu Nazioarteko Zuzenbidea, Nazio Batuen Gutunaren printzipio eta baloreak eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ebazpenak, irtenbide politiko bidezko eta iraunkorra aldarrikatzen baitute, alde bien artean adostua eta Saharako Herriaren borondatea askatasun osoz adierazteko eskubidea gauzatu amaitu beharko litzatekeena.
- 3- Lazkaoko udalak eskatzen die Espainiako Estatuari eta Europar Batasunari berari EBko Justizia Auzitegiak emandako ebazpenak errespetatzeko. Ebazpen horien arabera, Mendebaldeko Saharako era guztietako baliabide naturalak Saharako Herriari dagozkio eta, haren baimenik gabe, ezin ditu inork erabili.
- 4- Lazkaoko udalak inplikaturako alde guztiei eskatzen die uko egiteko probokaziozko edo indarrezko edozein ekintzari; eta konpromisoa hartzeko elkarrizketa eta negoziatio prozesuarekin jarraitzeko, Mendebaldeko Saharan Erreferendumerako Nazio Batuen Misioarekin (MINURSO) hitzartutako akordioak erabat errespetatu.
- 5- Lazkaoko udalak bere lurraldea okupatuta duen herriaren tragedia aitortzen du; baita basamortuan bizi irautea lortzen duten errefuxiatuena ere. Ondorioz, Gipuz-





koako erakunde zein herritarrei dei egiten diete jarrai dezatela Mendebaldeko Saharako eta Tinduf-eko kanpamentuetako egoera humanitarioa hobetzeko laguntza eskaintzen.”

Osoko bilkurak, mozioa aho batez onartu du.

#### XI.- GIPUZKOAKO GARRAIO PUBLIKOKO TARIFEN INGURUAN EH BILDUREN MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

##### “GIPUZKOAKO GARRAIO PUBLIKOKO TARIFEN JAITSIERA AZTERTU ETA ADOSTEAREN ALDEKO MOZIOA

Gipuzkoako Garraio Publikoko tarifen jaitsiera beharrezkoa da, egiten den bidaia edozein dela ere, edo erabiltzen den garraiobidea tren, lurralde-bus edo hiri barruko zerbitzua izan.

Bidegiren diru-bilketaren ehuneko bat garraio publikoa sustatzera bideratzea jasotzen du 1/2011 Foru Dekretuaren 2. xedapen gehigarriak, Europako zuzentarauak irekitzen duen aukera baliatuz. Zalantzarik gabe, ekimen horri eutsiz gero, Gipuzkoako Foru Aldundiak klima-aldaketaren aurkako borrokan ekarpena egingo luke, Gipuzkoako ahalmen handiko errepideak erabiltzean erregai fosileko ibilgailuen joan-etorriek sortzen dituzten CO<sub>2</sub> isuririk murrizteko norabidean.

Garraio publikoa gehien erabiltzen duenari mesede egiten dion MUGIren filosofian sakonduz, beharrezkoa ikusten dugu laugarren tarte bat sortzea, deskontuak sektore gehiagotara zabaltzeko. Eta horrela, tarifen deskontuak agerikoak izanda, MUGI erakargarriagoa egitea lortuko genuke, eta erabilera zabaldu.

'Garraio publikoko murrizketak direla eta, tartean Irun-Brinkola aldiriko linean edo Buruntaldeko autobusetan, erabiltzaileak galtzen ari da Gipuzkoako garraio publikoa.

Zerbitzuen gutxitzeak tren zein autobusen maiztasuna Jaitea dakar, eta ondorioz, jende pilaketak sortzea errazten du eskaintzen diren zerbitzuetan. Aglomerazioen aurrean beldurra areagotzen da eta horrek eragin zuzena du zerbitzuaren erabileran.

Gauzak horrela, garraio publikoaren sistema inoiz baino gehiago indartzeko unea da, pandemian galdu dituen erabiltzaileak berreskuratu eta sistemara erabiltzaile berriak erakartzearaino, MUGI sistema martxan jartzeak ekarri zuen iraultzan sakondu behar da. Zalantzarik gabe, doako garraio-aldaketek erakargarriago egin dute MUGIren erabilera.

Honengatik guztiagatik, Lazkaoko Udaleko osoko bilkurak honakoa onartzen du:

1. Lazkaoko Udalak Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritza osatzen duten erakundeei eskatzen die tarifa jaitsiera aztertu eta adostu dezatela. Horretarako, besteak beste, Bidegiren diru-bilketaren ehuneko bat baliatu daiteke, 1/2011 Foru dekretuaren 2. xedapen gehigarriak jasotzen duen bezala, garraio publikoa sustatzea helburu izanik.

2. Lazkaoko Udalak Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritza osatzen duten erakundeei eskatzen die tarifa jaitsiera horrek, erabiltzaile berrien sorrera helburu izan dezala eta ga-

rraio publikoa maiz erabiltzen duten erabiltzaileen onura bilatu dezala, tarifetan 4. tarte bat sortuz.

3. Lazkaoko Udalak irmoki defendatzen du momentua dela, garraio publiko sistema inoiz baino gehiago indartzeko, pandemian galdu dituen erabiltzaileak berreskuratzeaz gain, erabiltzaile berriak sistemara batzeko eta horretarako beharrezko neurri guztiak aztertu beharko liratekeela hainbat erakundek osatzen duten Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzan. Izan ere, Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzaren eginkizuna da irisgarria eta kalitatezkoa den mugikortasuna bultzatzea, gizartearentzat eta lurralde historikoan zehar, gaur egungo zein etorkizuneko eskariari jaramon eginez.

4. Lazkaoko Udalak erabiltzaile gutxitzea dela medio edo bestelako edozein erabaki tarterko Gipuzkoako garraio sistemari eman diren eta ematen ari diren zerbitzu murrizketak salatzen ditu. Garraio sistema publikoa indartzearen aurka doazelako. Besteak beste, aldirikoetan ari da gertatzen hori edota autobusetako hainbat emakidekin.”

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du noski, mozio honen alde bozkatuko dutela.

Alkateak (EAJ) esan du Gipuzkoako Garraio Publikoak lurraldebus, hiribus eta Eusko Trenbideak zerbitzuak hartzen dituela bere barne, nahiz eta Lazkaon lurraldebus bakarririk izan daukaguna. Esan du baita ere zerbitzu guzti horien tarifak ez direla berdinak eta tarifa berdintze hori nahi izan dela MUGI txartelarekin, beraien ustez bi puntuen arteko bidaiarengatik ordaindu beharreko tarifa zenbateko berdinekoa izan beharko lukeela, zerbitzu bat ala bestea erabili. Esan du baita ere, mozioak dioenera gerturatuz, mozioan hainbat gauza esaten direla eta horietako hainbatekin ados ere badaudela eta ez aldiz beste batzuekin, eta ez daudenekoen artean legoke Bidegiren dirubilketarena aipatzen den zatirekin. Esan du baita ere, garraio publikoaren murrizketa aipatzen dela mozioan eta berriek ez dakitela zein izan den RENFEK egin duen murrizketa zergatik egin duen eta ez daudela ados murrizketarekin baina baita ere esan behar dela zerbitzua beste puntu batzuetan indartu egin dela, eta bere osotasunean hartuta lurraldeko garraio zerbitzua, zerbitzu ona daukagula iruditzen zaiela. Esan du baita ere tarifen jaistea eskatzen dela mozioan eta bera ez dela gai tarifak jaitsi edo mantendu egin behar diren esateko. Esan du baita ere klima aldaketaren aurkako eta gizarte kohesioa bultzatzen duen garraio zerbitzu publiko indartsu bati baietz esaten diotela baina ez dutela bat egiten mozioan aipatzen diren beste zenbait aipamen eta proposamenekin.

Gaiaz eztabaidatu ondoren bozketara jarri da eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 boto (EH Bildu) eta aurkako 7 botoz (EAJ) mozioa atzera bota du.

## XII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) iruzurren aurkako plana onartuta al dagoen galdetu du.

Alkateak erantzun dio gai hori ez dagoela mahai gainean une honetan. Gehitu du begiratuko dutela.

LAZKAOKO

XIII.- BILERAREN AMAIERA.-





LAZKAOKO  
UDALA

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, iluntzeko zortziak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

